



www.begiko.com

© Testua: 2022, JOSEBA SANTXO URIARTE

© Argitalpen hau:

2022, Sanoma Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.
Begiko marka erregistratua da, Grupo Santillana
Educación Global, S.L.U.-k zuzenean edo zeharka erregistratua,
eta Sanoma Infantil y Juvenil, S.L.-k marka hori erabiltzeko baimena du.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-51-3

Lege-gordailua: M-18404-2022

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2022ko urria

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea, Marta Olivares eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Iraitz Urkulo

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega,

Álvaro Recuenco eta Laura Ruiz



Liburu hau egiteko erabili diren
lehengaiak birziklagarriak dira,
eta jasangarritasunaren, ekonomia zirkularraren
eta energia-kudeaketaren alorreko Europako
arauak betetzen dituzte.

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola
erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea zein eraldatzea,
haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat
fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Nire baitako ahotsak

Mikroipuinak

Joseba Santxo

begiko

*Berak badaki eta
bastante dut hori.*

Liburura sartzeko giltza

Liburu honek –ahotsak baditu ere– ez dihardu kantuz. Hemengo ahotsak ez dira tenor ospetsuenak, mikrofonoa behar duten ahots apalak baino. Nire baitan bizi dira ahots horiek, nire barruan, eta kanpora irteten uzteko eskatu didate, zidaten, bi mila eta hogeita batgarren urteko abuztuan, hain zuzen ere. Eta kanpora irteten utzi nien paperera ekarrita, ez bainuen nire barnean ahots presorik eduki nahi. Hementxe dituzu. Ez daude diren guztiak, irtenbidea galdegin zidatenak baizik. Zure esku uzten dut, irakurle, ahots hauek polifonia gogobetegarrik sortu ote dizuten baloratzea.

9

Hogeita hamaika mikronarrazio topatuko ditu liburu honetan barna abiatzen denak, hogeita hamaika egun baititu abuztuak, baita 2021ekoak ere. Urte berorretako abuztuan zehar idatzitako mikroipuinak dira. Testu bat eguneko. Erritmo horixe ezarri nion neure buruari. Eta idatzitakoan, lagun bati bidaltzen nizkion whatsapp-pez, banan-banan, hartzaile zuzena behar bainuen, jarritako martxari, hartutako konpromisoari eutsiko

banion. Eta bete egin nuen neure buruari emandako hitza. Derrigortasuna plazer bilakatu zitzaidan, baina. Hogeita hamaika orgasmo txiki izan nituen. Orain, orgasmo narratibo horien gozamina luzatzea nahi nuke, inork nire baitako ahotsak aditzea ere plazer iturri handia bainuke.

10 Gai desberdinak. Pertsonaia diferenteak. Toki erreal bezain irrealak. Denbora malgu bezain iraunkorra, Dáliren margolaneko oroimenaren antzera. Askotariko egoerak, alaiak, estuak, azalekoak, gogoetatsuak, umorezkoak, tristeak, errealistak, surrealistak, sentimenduzkoak, friboloak, logikoak, absurdoak... Neu ere harritzen naiz pentsaturik zelan bizi ote zitezkeen hain ahots ezberdinak ene baitan! Baina hor zeuden, egon. Eta askatu ditut, askatu, entzun ditzazun, entzun.

Mikrokontakizun hauetan hitz gutxiko istorio ugari daude. Aise irakurriko dituzu. Baina nire irrika irakurri osteko zure erreakzioan dago. Horixe jarri dut begia. Zure emozioak bilatu ditut. Zure harridura, zure algara, zure irudimena, zure purrustada, zure pena, zure marmarra, zure isilunea. Eta horretarako, banan-banan aukeratu ditut hitzak, esaldiak, esapideak. Erritmoa bilatu dut, irudia, pausa. Zentimetro gutxitan mugitu naiz, kilometrotako zirrarak eragin nahiz. Lorpenak lorpen, horra hor nire ahalegina. Azken batean, nire baitako ahotsak baino ez dituzu irakurgai xumeok.

Egiturari dagokionez, zati nagusi bi ditu liburu honek. Lehen zatian aipatutako hogeita hamaika mikronarra-

zioak dituzu. Liburuan datozen hurrenkeran irakurtzea gomendatzen dizut. Eta bigarren zatian, mikronarrazioon inguruko iruzkinak sartu ditut: testuak sortzeko izan ditudan abiapuntuak, erabili ditudan ideiak, ezarri ditudan helburuak, bilatu ditudan erreakzioak, baliatu ditudan estrategiak, eta abar. Strip-tease moduko bat izan da hori. Biluzte kontzientea eta kalkulatu izan da hemen egin dudana. Izan ere, inpresioa daukat askotan ez ote dugun larregi espekulatzen egileen intentzioaz.

Nire azalpenok irakurrieran, gerta liteke harritzea edo larritzea, liluratzea edo zapuztea. Lasai horregatik. Iruzkinon helburua ez baita zu eta biok ezertan bat etortzea. Zure interpretazioa nire asmoa bezain bidezkoa eta onargarria baita.

Nire xedea askoz xumeagoa izan da: zuri sorkuntza prozesuaren alde biak erakustea, agertokia eta teloiaren atzealdea, ipuinon sortze-prozeduraz gehiago jakin dezazun, eta hortik zure kontuak atera ditzazun. Izozmendi baten urpeko zatia agertzearen antzekoa litzateke, gehienetan idazten ez den zatia idazten dena baino askoz luzeagoa eta sakonagoa izaten baita. Horregatik ibili naiz luze eta naro azalpenotan. Iruzkinok interesgarri edota aberasgarri gertatuko ahal zaizkizu!

LEHEN ZATIA

Mikroipuinak

Ustekabea

Ongi etorri Arimen Birziklatze Zentrora. Orain zuen bizitza osoaren pelikula ikusiko duzue, hasi eta amaitu. Ondoren, berriro ikusiko duzue, baina nahi dituzuen puntuetan gelditu ahal izango duzue grabazioa. Eskainiko zaizkizuen hiruna alternatibetatik bana hautatzeko aukera ere izango duzue.

15

Ikustaldi interaktibo hau bukatutakoan, berriro ikusiko duzue filma osorik, baina oraingoa zeuek berridatutako bertsioan.

—Ez diot zentzurik ikusten —esan du aretoko azken lerrotik arima batek—. Zer helburu du honek guztiak?

—Prozesu hau azterketa bat da —azaldu du off-eko ahotsak—. Hiru ikustaldiak finitutakoan, azterketaren kalifikazioa jasoko duzue. Eta horren arabera izango da zuen berbizitzaratzea. Hortixek jakingo duzue gizaki, animalia, landare edo harri bihurtuta itzuliko zareten mundura, zuen hurrengo bizitza egitera.

Zuk ukitu asko egin diozu bideoari, bihotzaren begiz zure bizitza oso hobegarria iruditu zaizulako. Baina

zaila da azterketan emaitza ona lortzea, ebaluazio irizpi-deak aurretik ezagutu barik.

Zure kalifikazio eskasak aukera bakarra eman dizu: harri bihurtuta eman beharko duzu zeure bigarren bizitza.

Gazte pekazto baten begi berdeak begira-begira dituzu.

—Hauxe da egokiena, arina eta zapala! —esan du ozenki.

16

Orduan, eskuan hartu zaitu, eta indarrez jaurti itsasorantz. Bost punpa egin ostean, itsas hondorantz murgiltzen hasi zara. Haitz belartsu baten gainean pausatu zara, karramarro baten begi erneen aurrean. Baina lasai zaude, ez baituzu ez minik, ez inorako presarik. Zure bigarren bizitza eroangarriagoa izango dela dirudi. Eroapena landuko duzu. Egonarria.

Arrosa

17

Eguzki izpiak indartsu sartzen ziren egongelako ateko leiarretik zehar. Amama ez zegoen udako egun eder hura alferrik galtzeko prest. Pauso laburrez zuzendu zen lorategiko tresnen arasara: palatxoa, inauskaia eta ureztaontzia.

Minez biratu zuen atearen brontzezko heldulekua, artrosiari gogor eginez. Jerikoko arrosa ñaño zimelduak moztu zituen lehenik, euren usain fina dastatuz batera. Ezin zituenez eskailerak igo, beheko aldetik kendu zizkien belar txarrak *Iris japonica* ederrei, euren lore more eta ubelek bere begiak liluratzen zituzten bitartean.

Ertz batean Damaskoko *Nigella* bat begiztatu zuen, eta inguruko belarrak alboratuta, ureztatu egin zuen, Lurreko azken lore bizia balitz legez.

Egun osoa eman zuen lorategian, barruak eskatuta, bizitza honetako bere azken eguna izango zuela ohartu barik.

Gauean, gogobeterik oheratu zen, lorategiko koloreek, usainek eta harmonia baketsuak sedatuta. Biharamunean hilik azaldu zen ohantzean, irribarre gozoa ahoan zuela.

Hileta zerbitzuko beharginek ez zioten jaramon handirik egin amonari zerion lurrin zoragarriari, koloniaren batena zelakoan. Amama Crimson Glory arrosa liofilizatu usaindun bilakatu zen gure gogoan, haren arrosa kuttuna, gure amama kuttuna.